ALHAO ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**

2024ko abenduaren 20a, ostirala • 144 zk.

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

LURRALDE OREKAREN ETA LURRALDE ANTOLAMENDUAREN SAILA

625/2024 Foru Agindua, abenduaren 9koa. Vanessa Domínguez Casal andrea Aialako Udaleko idazkari kontuhartzaile lanpostutik kentzea, berak hala eskatuta

Aiarako Udalak jakinarazi du Vanessa Domínguez Casal andreak uko egin diola, bere borondatez, Aiarako Udaleko idazkari kontuhartzailearen lanpostua metaketa bidez betetzeari, 2024ko abenduaren 2tik aurrerako ondorioekin.

Uztailaren 9ko 422/2024 Foru Aginduaren bidez, Vanessa Dominguez Casal Dulantziko Udaleko idazkari kontuhartzaileari baimena eman zitzaion Aiarako Udaleko idazkari kontuhartzailearen eginkizunak metaketa bidez betetzeko.

Estaturako gaikuntza duten toki administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 56. artikuluak ezartzen duenez, xedapen horren VI. kapituluan aipatzen diren izendapenak egiteko eskumena duten organoek izendapena errebokatzeko eskumena ere badute. Artikulu bereko 2. apartatuak ezartzen du izendapen edo errebokatze horiek egiten dituen organoak dagokion idatzoharra egin behar duela aipatutako errege dekretuaren 23. artikuluan adierazten den erregistro integratuan.

Estaturako gaikuntza duten toki administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren xedapen gehigarrietatik hirugarrenean xedatutakoari dagokionez, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak hamahirugarren xedapen iragankorrean agindutakoa betetzeko, Arabako Foru Aldundiaren Gobernu, Antolaketa eta Araubide Juridikoari buruzko martxoaren 15eko 10/2023 Foru Arauaren 24. artikuluan jasotako eskumenak betez, eta horien indarrez dagozkidan ahalmenak baliatuz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Vanessa Domínguez Casal andrea Aiarako Udaleko idazkari kontuhartzaile lanpostuko eginkizunetatik kentzea, berak hala nahi izan duelako, Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Saileko diputatuaren uztailaren 9ko 422/2024 Foru Aginduan xedatutakoaren arabera.

Bigarrena. Kargu uzte horrek 2024ko abenduaren 2tik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena. Foru agindu hau dagozkion ondorietarako jakinaraztea Aialako Udalari, Dulantziko Udalari eta Eusko Jaurlaritzaren Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzari, eta ALHAOn argitaratzeko agintzea.

Laugarrena. Jakinarazten den foru agindu hau behin betikoa da administrazio bidean, eta haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez daiteke zuzenean Vitoria-Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegietan, bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik aurrera. Hori guztia, bat etorriz Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. eta 124. artikuluetan eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 46. artikuluan xedatutakoarekin.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko abenduaren 9a

Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Saileko foru diputatua
LAURA PÉREZ BORINAGA

Lurralde Orekaren zuzendaria
JAVIER GORBEÑA GARCÍA

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Firmante: CN=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=SELLO ELECTRONICO, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-P0100000I, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 267116
Fecha de firma: 2024.12.20 07:12:11 Z